

Euskara egunkarietan

Deia, [1982-06-01].

Euskararentzat instituzioen babesak aspaldi eskatzen ari ginenontzat, pozgarri izan da bide hontatik etorri zaion laguntza guztia.

Euskara ikasi nahi dutenak, euskaldunak izan eta alfabetatzeko beharra ikusi duten gazte eta nagusiak, ba dituzte orain aukerak eta erraztasun bereziak, eta hontaz gainera, hortarako antolatu diren erakundeetan lehen ez bezalako profesionaltasun baten garantia.

Hau ba da zerbait baino gehiago; asko da.

Gauza asko dagoz zuzentzeko, huts asko betetzeko, adostezintasunak elkargarri egiteko, geurekoikeri asko alde batera uzteko.

Euskara egitan maite badugu behintzat.

Hala ere, ba da lorpen honen urrungo edo ondore bezala sortu diren behar nagusi batzu. Hizkuntza, komunikabide bat denez, hitz egin eta entzun, idatzi eta irakurtzeko tresna bat da, eta erabili behar dena; bestela erdoitu eta galtzen bait da bereala.

Eta egindako lan guztiak alferrik aldatuko eta galduko ditu.

Errati-bidea da oraingoz ondoen lanean ari dena, nire ustez.

Alor hau utz dezagun gaurkoz, eta goazen egunkarietara.

Euskaldun berria edo alfabetatu berria lanean jartzeko, ez da nahikoa honi irakurgai batzu lan-bide bezala eskeintzea; horretaz gainera, euskarazko irakurgaien behar bat sortzea nahitaezkoa da, irakurgai hoiak berezko eragin bat sortu behar dute; euskaraz irakurtzeko bidean gaitu den hori, motibatu egin behar da; ahal bada, irakurle berri hoi mundua osatzeko jakingarri diren berriak eta irakurgaiak premiazko egiten ahalegin handi bat egin beharra dago.

Gainontzeko hizkuntzetan normalki gertatzen den bezala.

Ba dakigu denok, bi hizkuntz erabiltzea heldu denak errezena joateko arriskua duela, bestelako kontzientzi baten jabe ez bada behintzat.

Euskaraz irakurtzeko behar hori sortzea, ez da, ba dakigu, erraza; hala ere, ba dira kontuan hartu behar genituzken arau batzu: 1. Euskaraz dijoan lanari ez zaio parean itzulpen baten tentaziorik jarri behar; erderazko laburpentxo bat, bai, behar bada, batzuk egiten duten gisa, baina gaiari dagokion garrantzia azpimarratzeko asmoarekin bakarrik. 2. Euskara ezin dugu lotu euskal gaietara bakarrik; ondo baino hobeto dago euskaldunak berez bereak bezala dituen alorrak: herri-jokoak, bertsolariak, pilota jokoak, kirolak, herrietako jaiak, euskaraz ematea; baina baita edozeinentzat interesgarriak diren berriak ere, ordea: eguraldia, itsasoaren egoera, esate baterako, eta baserritarrak eta arrantzaleak dituzten beharrak eta erabiltzen dituzten hitz eta esateko bideak kontuan ondo hartuaz, eta ez asmagarri modura. 3. Euskarari lagundu nahi dion egunkari batek, euskararen saila daramanari askatasuna eman behar liokete gainontzeko gaiak (herrikoak, herritik kanpokoak, denak) berari dagokion bide errazean

(elkarrizketa bidez, e.b.) erabiltzeko; erdaraz izan ez dituzten inizatibak berez hartu ahal izateko, eta ez, orain arte gerta izan dena, erdara bakarrik ezagutzen duenaren mende egin izan ahal denaren pixkarekin geratu.

Hau dena zor zaio euskaldun berri edo alfabetatu berriari, eta euskarari.

Euskal kazetariari hegoak luzetu egin behar zaizka, eta eskuz gutxienez %15 menderatzeko bidean jarri, euskararen zabalkundea gorantz dijoan neurri berean.

Sostengarri hau behar du euskarak gaur, norabait heltzea hastea nahi badugu, behintzat...